



## EUSKAL OLERKARI BAT HIL MIKEL ZARATE

*Apirilaren 10an, Lezamako Lejarrene baserrian, Mikel Zarate idazlea eta euskaltzaina hil zen; oraindik gazte izan arren (45 urte), euskal intelektual garrantzitsuenetariko bat bezala kontsideraturik zegoen.*

*Apaiza eta euskaltzaina zen, Derioko Seminario ikastetxean, Bilboko Hizkuntz Eskola Ofizialean eta Deustuko Unibertsitateko Euskal Filologia Sailan Euskarazko irakaslea zen. Nobela, Entsein eta Olerkia landu zituen, Idatz-sari batzuk irabazi zituen, hamabost bat liburu utzi ditu idatzirik, honen artean, poema liburu batzuk "HIGIDURA BERDEZ", "BIZIPENEN BULTZADAZ" eta "UTOPIAREN FANTASIAZ".*

*Bere bat bateko desagertzeak serbi dezaigula, bere bertsoak ezagutu ez genituenok, gutxienez bere hitzen eta sentsibilitatearen berri izan dezagun, eta baita ere, gure hizkuntz zaharraren bukatu - ezinezko pentsibilitateak ezagutzeko.*

1937, APIRILAK 26

Zeus txikiaren haundi izan gura.  
Agindu eroa. Indar frogantza.  
Zezen hegalarien marruma dantza.  
Infernua dator gure zerura.

Tximist lehertuen abiadura  
haserre gorritan Gernikarantza. ...  
hasi sa, hasi da hiri triskantza  
eta garrasika dago mindura.

Garrasi larritan ama umea,  
aitaren gorputz hil buru gabea;  
garrasika txori, lore, burdina.

Harri, ohol, haize ta su irakina;  
garrasiz herrien betiko lotsa,  
askatasunaren betiko hotsa.

(BIZIPENEN BULTZADAZ), 1978

## LA MUERTE DE UN POETA VASCO

El pasado día 10 de Abril falleció en su caserío de Lejarrene, de Lezama, el escritor y académico Mikel Zarate, quien pese a su juventud, 45 años, estaba considerado como uno de los más importantes intelectuales vascos.

Sacerdote, académico correspondientes a Euskaltzaindia, profesor de Euskera en la Escuela-Seminario (Ikastaro), de Derio, en la Escuela Oficial de Idiomas de Bilbao y en la Sección de Filología Vasca de la Universidad de Deusto... cultivó la novela, el ensayo y la Poesía. Ganador de varios Premios Literarios, ha dejado publicados una quincena de libros, entre ellos los poéticos "HIGIDURA BERDEZ", "BIZIPENEN BULTZADEZ" y "UTOPIAREN FANTASIAZ".

Sirva su repentina desaparición, cuando menos, para que quienes no supimos de sus versos, probemos de sus palabras y de su sensibilidad. Y para reconocer las infinitas posibilidades de nuestra vieja lengua.

LAUAXETA

Zidar zuriaren  
bide berriak  
arrats behearen  
urre gorriak.

Lehenaren garrak  
barnean leher:  
berditu zaharrak,  
berriak eder.

Eder, berri, zahar,  
nire atsegin;  
zure urre-zidar  
beti nirekin.

Odolezko lainoz  
hildako arrats  
egunsentiko poz  
bizi aberats.

(HIGIDURA BERDEZ), 1977